Bestelako Xedapenak

KULTURA SAILA

4123

EBAZPENA, 2009ko ekainaren 26koa, Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordearena, Bilboko (Bizkaia) Teofilo Guiard, 1. zenbakian dagoen eraikina, monumentu izendapenaz, Euskal Kultura Ondarearen Zerrenda Orokorrean sartzeko espedienteari hasiera eman, eta jendaurrean jarri eta interesdunei entzuteko dena.

Euskal Autonomia Erkidegoak, Konstituzioaren 148.1.16 eta Estatutuaren 10.19 artikuluen babesean, eskumen osoa bereganatu zuen Kultura Ondarearen gaiari dagokionez. Aipaturiko eskumen horretaz baliatuz, uztailaren 3ko Euskal Kultura Ondareari buruzko 7/1990 Legea onartu zen, kultura-interesa duten Euskal Autonomia Erkidegoko ondasunak deklaratzeko prozedurak arautzen dituena.

Bilboko (Bizkaia) Teofilo Guiard, 1. zenbakian dagoen eraikinak daukan kultura-interesa azterturik, eta Kultura Ondarearen Zentroko Zerbitzu Teknikoek aurkezturiko Ebazpen Proposamenari jarraituz, honako hau

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Bilboko (Bizkaia) Teofilo Guiard, 1. zenbakian dagoen eraikina, monumentu izendapenaz, Euskal Kultura Ondarearen Zerrendan sartzeko espedienteari hasiera ematea, I. eranskineko mugaketarekin, eta II eranskineko deskripzioarekin bat etorriz.

Bigarrena.– Bilboko (Bizkaia) Teofilo Guiard, 1. zenbakian dagoen eraikina Euskal Kultura Ondarearen Zerrendan sartzeko espedientea jendaurrean jartzea, Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunetik hasi eta 20 eguneko epean alegazioak egin eta egokitzat jotzen diren agiriak aurkeztu ahal izateko, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/92 Legearen 84 eta 86 artikuluetan oinarrituz. Aipaturiko espedientea Vitoria-Gasteizko Donostia-San Sebastián kaleko 1. zenbakian dagoen Euskal Kultura Ondarearen Zentroan dago ikusgai.

Hirugarrena.– Ebazpen hau interesdunei, Bilboko Udalari, Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura eta Garraio eta Hirigintza Sailei eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailari jakinaraztea, jakinarazpena egin eta 15 eguneko

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE CULTURA

4123

RESOLUCIÓN de 26 de junio de 2009, del Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes, por la que se incoa y se abre un periodo de información pública y audiencia a los interesados en el expediente de inclusión en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, con la categoría de Monumento, de la casa sita en Teófilo Guiard, 1 de Bilbao (Bizkaia).

La Comunidad Autónoma del País Vasco, al amparo del artículo 148.1.16 de la Constitución y a tenor del artículo 10.19 del Estatuto de Autonomía, asumió la competencia exclusiva en materia de Patrimonio Cultural, en cuyo ejercicio se aprueba la Ley 7/1990, de 3 de julio, del Patrimonio Cultural Vasco que rige los procedimientos de declaración de bienes de interés cultural de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Visto el interés cultural que presenta la casa sita en Teófilo Guiard, 1 de Bilbao (Bizkaia), atendiendo a la propuesta de resolución presentada por los Servicios Técnicos del Centro de Patrimonio Cultural,

RESUELVO:

Primero.– Incoar el expediente de inclusión en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, con la categoría de Monumento, de la casa sita en Teófilo Guiard, 1 de Bilbao (Bizkaia) conforme a la delimitación que figura en el anexo I y a la descripción obrante en el anexo II.

Segundo.– Abrir un período de información pública del expediente de inclusión en el Inventario General del Patrimonio Cultural Vasco, con la categoría de Monumento, de la casa sita en Teófilo Guiard, 1 de Bilbao (Bizkaia), para que durante el plazo de 20 días, contados a partir del día siguiente a la publicación de esta Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco, se puedan efectuar las alegaciones y presentar la documentación que se estime oportuna, como previenen los artículos 84 y 86 de la Ley 30/1992, del Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común, encontrándose el expediente de manifiesto en el Centro de Patrimonio Cultural Vasco, sito en la calle Donostia-San Sebastián n.º 1, de Vitoria-Gasteiz.

Tercero.– Notificar la Resolución a los interesados, al Ayuntamiento de Bilbao y a los Departamentos de Cultura y Transportes y Urbanismo de la Diputación Foral de Bizkaia, así como al Departamento de Medio Ambiente, Planificación Territorial, Agricultura y Pesca

epean alegatu eta egokitzat jotzen dituzten agiriak eta frogagiriak aurkeztu ahal izateko.

Laugarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzea, jende guztiak Ebazpen horren berri izan dezan.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko ekainaren 26a.

Kultura, Gazteria eta Kiroletako sailburuordea,
ANTONIO RIVERA BLANCO.

del Gobierno Vasco, a fin de que en el plazo de quince días desde la notificación puedan alegar y presentar los documentos y justificaciones que consideren pertinentes.

Cuarto.– Publicar la Resolución en el Boletín Oficial del País Vasco y en el Boletín Oficial de Bizkaia para su general conocimiento.

En Vitoria-Gasteiz, a 26 de junio de 2009.

El Viceconsejero de Cultura, Juventud y Deportes,
ANTONIO RIVERA BLANCO.

I. ERANSKINA

Mugaketa

a) Mugaketaren deskribapena.

Hiri-lurzoru finkatuaz ari garenez, mugaketak eraikina bera barne hartzen du. Hortaz, orubearen perimetroak definitzen du mugaketa.

b) Mugaketaren justifikazioa.

Bilboko Teofilo Guiard kaleko 1. zenbakiko eraikinak dituen ingurumen eta ikusmen balioak zaintzeko beharragatik proposatu da mugaketa hau. Mugaketa hori beharrezkoa da eraikinak duen berezkotasuna zaintze aldera, ondasunari babesa eta balioa emateko. Horregatik, eta hirian dagoenez, orubea bera mugatzea nahikoa dela irizten da.

ANEXO I

Delimitación

a) Descripción de la delimitación.

La delimitación incluye al propio edificio en sí debido a que estamos en un suelo urbano totalmente consolidado. Así, el área de la delimitación queda definida por los límites que marca el perímetro de su solar.

b) Justificación de la delimitación.

La delimitación propuesta viene justificada por la necesidad de preservar los valores ambientales y visuales del inmueble de Teófilo Guiard 1, en Bilbao. Esa delimitación es necesaria para la debida protección y puesta en valor del bien a fin de preservar el carácter propio del inmueble. Por ello y siendo un entorno urbano se considera suficiente la delimitación de su propio solar.


Museo de Bellas Artes
Museo de Arte Moderno
CALLE TEOFILO GUIARD
CALLE MAXIMO AGUIRRE
CALLE COLON DE LARREATEGU
n 60
n 58
n 56
n 50
n 48
n 46
n 46 bis
n 49
n 47
n 45
n 56
ESKALA / ESCALA
10 0 10 20 Meters
EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Kultura Ondarearen Zuzendaritza
Kultura Ondarearen Zentroa
DEPARTAMENTO DE CULTURA
Dirección de Patrimonio Cultural
Centro de Patrimonio Cultural
Planoa / Plano:
Teofilo Guiard 1 eraikina
Babes eremuaren mugaketa
Delimitación del entorno de protección
Lurraldea / Territorio: BIZKAIA
Udalerria / Municipio: BILBAO
Data / Fecha: 21/05/2009
Eskala / Escala: 1:1000

II. ERANSKINA

Deskribapena

Tamaina handiko eraikin erdi-exentua da eta Kasilda andrea parkearen sarreretako batean dago. Eraikinak sotoa, beheko solairua eta zazpi solairu ditu. Sarrera fatxada nagusian dago eta kiribildurez azkendutako konposizio monumentalak edertzen du; erdiko ardatzari binakako hutsarte batzuek ematen diote hasiera. Horrela, alaken begiratokien bertikaltasuna nabarmentzen da. Begiratokiak diseinu desberdineko dorreetan daude eta dorreek pinakuluz marraztutako profila dute. Sarrera bi mentsula handiko erlaitzak errematatzen du; erdian txirla bat du eta loreontzi bat goi-erliebean. Alde bakoitzean mentsula eta apaindura edo zintzilikarioa duen lerronahasiko balkoi bat du. Bigarren solairuan bi mentsula handik eusten dituzten harrizko balaustreak agertzen dira. Hirugarrenean mentsula handiz inguratutako leihoak daude eta horien artean armarri barroko bat dago. Laugarren solairuan burdinezko karelak dituen balkoiak, ukondutako ertza duten hutsarte dintelduak elkartzen ditu. Bosgarrenean, puntu erdiko lau hutsarte dituen begiratoki gisako harrizko gorputza harrizko mentsuloi handiek eusten dute. Seigarrenean harrizko balaustreak dituen erdiko balkoia gailentzen da eta alboetan bi mentsula handi dauzka. Azken bi solairuak fatxadaren lerroa baino barrurago daude eta biak terrazen atzean ezkutatzen dira. Hutsarteen tipologia eta dekorazioa era askotakoa da: eskartzanoak, kaxeatutako pilastrez edo txirlaz inguratutako leiho abalkonatuak; harrizko begirategiak, puntu erdiko hutsarteak, anguluak apaintzeko ezarkin ugari... Maximo De Aguirre kaleko alakadun fatxada poligono itxurako dorre batez amaitzen da. Dorrearen koroan harrizko txakurrak eta pinakuluak daude eta Anduizako armarria agertzen da. Fatxadaren lerroa Kasilda Iturrizar parkean eta Maximo Aguirre kalean luze dago. Eraikinak jauregi itxura du. Beheko solairuak eta lehenengoak basamentu sendoa dute oinarri eta lehenengoak gorputz nagusiari eusten dio. Gorputz nagusiak, aldiz, bigarrenetik bosgarrenera arteko solairuak gain hartzen ditu eta, amaitzeko, horien guztien gainean goiko solairu irekia dago. Eraikinaren osotasunean harlanduen erabilera gailentzen da.

Ataria berezia da. Sarreraren aurrean dagoen atariaren ingurua toskanar ordenako marmol gris, berde eta erre koloreko bi zutabek osatzen dute. Zutabeak ataria baino gorago altxatuta daude eta material bereko eskailera-mailak dituzte euren artean. Zutabeen artean eraikinera sartzeko egurrezko ateak daude. Ateen beste aldean egurrezko zutabeak daude. Alboek aurrealdearen eskema bera errepikatzen dute: zutabeen ordez pilastrak daude eta ertz bakoitzean pilastra bat dago. Ordena klasiko horiek triglifoak eta metopak dituzten frisoari eusten diote. Sabaia eskaiolazko zerrenda lerronahasi batek

ANEXO II

Descripción

Es un edificio semiexento de grandes dimensiones ubicado en una de las entradas al Parque de doña Casilda. Consta de sótano, planta baja y siete alturas. En la fachada principal se abre el acceso, realzado por una composición monumental rematada por volutas y con una serie de vanos pareados que inaugura el eje central. De este modo se acentúa el sentido vertical de los cuerpos de miradores de los chaflanes, rematados en torres de diseño diferente y perfil dibujado a base de pináculos. El ingreso está rematado por una cornisa con dos grandes ménsulas, una venera central y un jarrón con flores en altorrelieves. A cada lado presenta un balcón mixtilíneo con repisa y lambrequín o colgante. En la segunda altura aparecen balcones con balaustres de piedra sustentados por grandes ménsulas. En la tercera ventanas recercadas con enorme repisa entre las que se ubica un escudo con decoración barroquizante. En la cuarta, un balcón con antepechos de hierro une los cuatro vanos adintelados con recerco acodillado. En la quinta un cuerpo de piedra a modo de mirador con cuatro vanos de medio punto está sustentado por grandes mensulones de piedra. En la sexta destaca un balcón central con balaustres de piedra y dos grandes ménsulas laterales. Las dos últimas alturas están remetidas respecto a la línea de fachada y se esconden tras sendas terrazas. La tipología y decoración de los vanos es variada: escarzanos, ventanas abalconadas recercadas con veneras o pilastras cajeadas; miradores de piedra, vanos de medio punto, profusos apliques decorativos en los ángulos… La fachada en chaflán con la calle Máximo de Aguirre está rematada por una torre poligonal coronada por canes de piedra y pináculos y muestra el escudo de Anduiza. La línea de fachada se prolonga por el parque de doña Casilda de Iturriza y la calle Máximo Aguirre. El edificio ofrece un aspecto palacial, descansa sobre un grueso basamento que abarca la planta baja y el primer piso que soporta el cuerpo principal, que abarca los pisos segundo a quinto, rematando el conjunto el piso abierto en la cubierta. Destaca el uso del sillar en el conjunto del edificio.

El portal es destacado. El lado del portal frente al acceso está formado por dos columnas de orden toscano de mármol gris, tostado y verde y se encuentran elevadas respecto al portal y separadas por unos escalones del mismo material. Entre las columnas se sitúan las puertas de acceso de madera. Por el lado opuesto existen columnas de madera. Los laterales repiten el esquema del lado frontal con pilastras en lugar de columnas y en los ángulos se sitúan sendas pilastras. Estos órdenes clásicos sostienen un friso con triglifos y metopas. Una cenefa de escayola mixtilínea decora el techo y recerca

apaintzen du eta zerrendak erdiko plafoia zeharkatzen du; metalezko lanpara bat dago bertatik zintzilik.

Zorua marmolezko figura geometrikoek osatzen dute. Sarrerako atearen ondoan eta alboetako hutsune bakoitzaren azpian harrizko bankuak daude eta bizkarraldean marmolezko figura bat dute.

Eraikinak bi eskailera dauzka, bata nagusia eta bestea zerbitzukoa. Patio baten inguruan antolatuta daude eta bertatik iristen zaie argia. Eskailera nagusia hegoaldean dago eta zerbitzukoa iparraldean, alboko lursailarekin mugan. Horrez gain, bigarren mailako beste bi patio daude. Txikiagoak dira eta sukalde edo komunen gisako gela osagarrietarako bidea ematen dute. Eraikinak bi etxebizitza ditu solairu bakoitzean.

el plafón central donde cuelga una lámpara metálica. El suelo está formado por unas figuras geométricas de mármol. Junto a la puerta de acceso y bajo los huecos que lo flanquean se sitúan sendos bancos de piedra cuyo respaldo es una figura de mármol.

El edificio cuenta con dos escaleras, una principal y una de servicio, que se articulan en torno a un patio del que reciben iluminación. La escalera principal se sitúa en el lado sur y la de servicio en el lado norte limitando con la finca contigua. Existen asimismo otros dos patios secundarios de menor tamaño que sirven a dependencias auxiliares como cocinas y baños. El edificio consta de dos viviendas por planta.